

**40»** Eilen Jewellek 'Queen of the Minor Key' diskoa aurkeztuko du gaur Bilbon, eta bihar Donostian

**42»** 'Margin Call' eta 'Another Earth' filmak estreinatuko dituzte etzi Hego Euskal Herrian

## Tipula azalez azal biluzten

Txinako kulturaren eta herrialdean izan dituen bizipenen berri eman du Rafa Egigurenek 'Gauza guztiak' lanean

**Maite Alustiza** Donostia

Ez da ohiko turismo gida bat, baina Txinara bidaiatu nahi duenak badu herrialdearen inguruan zer ikasi *Gauza guztiak* (Pamiela) liburuarekin. Rafa Egigurenek (Hernani, Gipuzkoa, 1948) duela 25 urte idatzitako oharra, han izandako bizipenek utzitako oroitzapenak eta herrialdeko kulturaren pintzelkadak jaso ditu lan horretan. Bere burua ez ezik, Txina ere biluztu du, geruzaz geruza. Lagun baten bizipenen eta herrialde bateko kulturaren arteko koktela, hori da «euskaldun bat Txinan».


Herrialdeko kulturaren barrunbeak daude liburuaren muietan, hau da, taoisten parabolak. Ondoren izan ziren neotaoistek ere presente daude, beste geruza batean. Hizkuntza bera ere landu du, txineratik euskararako itzulpenak eginez, esaerak eta esanahiak jorratuz. *Tang* garaiko olerkiak eta *Song* garaiko pinturak izan ditu hizpide, elkarrekin

oso lotuta dauden bi arte. Euskaldunek Txinan egindako urratsak ere ekarri ditu gogora, pilotari eta jesuitenak tarteko.

«Txina ez da taoismoa bakarrik, ezta nire pasadizoak ere: geruza asko izan ditzakeen tipula bat da», Egigurenen arabera. Tipula bat da Txina, baita liburua ere, azal eta guzti. Bi zeinu txinatarrek hartzen dute azalaren erdialdea: «Hamar mila gauza», diote. «Txinako kultura sartuta dagoen gauza garrantzitsu bat da, beraientzat hamar mila gauza han dauden gauza guztiak dira». Itsaso zabal horretatik lagin txiki bat jaso du Egigurenek, bere neurrian gazituz. «Kontrajarriak diruditen arren, irudimena eta oroi-mena bitarteko, gauza guztiak gorde litezke liburu batean».

### Aldaketak herrialdean

Ikastera heldu zen Txinara, duela 25 urte, eta ez da berriro itzuli. Lagunen, prentsaren eta telebistaren bidez izan du gerotik haren berri. Txinak jasan duen aldaketari «ikaragarria» deritza; hala ere, berak liburuan jaso dituen geruzek berdin jarraitzen dutela dio: «Liburuan agertzen diren gauzak ez dira aldatu. Horrelako zibilizazioen funtsa hizkuntzan eta kultura dago; garai bateko kultura gaur egun arte iritsi da».



Aurretik *Ilargia putzuan ageri* eta *Mandarin dotore* lanak idatzi ditu Egigurenek Txinari buruz. ANDONI CANELLADA/ARP

Dena den, Txinak izan du aldaketarik, munduko edozein herri edo hirik neurri batean edo bestean izan duen moduan. Duela mende laurden txinatarrek beraien iragartzen zuten euren herrialdearen etorkizuna dezente aldatuko zela: «Eskolan elkar eza-gutzeke guateke moduko bat egiten genuen, eta han esaten zigten bazekitela berehala bigarren potentzia mundiala izango zirela,

eta asmatu dute». Kaleak ez daukete berdin; bertakoen bizimodua ez da berdina. «Pekinen txaletak zaldiekin ikusten ziren orduan, baserrietan ikusten zen jendea. Badakit orain zaldiak ez direla ibiliko, auzo txiki eta zahar horiek botatzen ari direla eta etxe orratz ikaragarriak daudela». Jankera ere aldatu da, «garai hartan biztanleriaren erdia militarrez jantzita ibiltzen zen».

Egungo Txinak, ordea, gordetzen du oraindik tipularen barrualdean dauden ohituren zaporea.

Txinari buruz argitaratutako hirugarren lana du Egigurenek. Aurrekoak *Ilargia putzuan ageri* (Erein) nobela eta *Mandarin dotore* (Gaztelupeko Hotsak) laneko poesien itzulpena dira. «Hiru zenbaki perfektua da, eta ez dut uste Txina ukituko dudarik hemen-dik aurrera».

“Ez genekien Bilbotik hain hurbil, munduko ohe onenak saltzen zituztenik”




**SUITE DELUX**  
ATBEDENERAKO MARKA EKLSIBOAK

www.SUITDELUX.com

- 1 Leioa Koltxoi-Denda, 944 316 516  
La Avanzada 80 (Bilboko norabideari).
- 2 Arteaga Koltxoi-Denda, 944 545 547  
Denoko Apatzenea (Irekia egurrelari).
- 3 Lotara Koltxoi-Denda, 943 202 784  
Errekal 19, Elbar

